

## **Giza Eskubideen Institutuak eta Ellacuría Fundazioak «erlijioen atlasa Euskadin» zein den azaldu dute, gutxiengo erlijiosoen liburu berri batean**

Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, Giza Eskubideen Institutuko zuzendari Eduardo Ruiz Vieytezek *Pluralidades latentes en el País Vasco* izeneko liburua aurkeztu zuen prentsaren aurrean, otsailaren 23an. Deustuko Unibertsitateko eta Ellacuría Fundazioko diziplina ugariko talde batek prestatu du, eta bertan azaltzen da 'erlijioen atlasa' zein den Euskadin. Emaitzetan ikusi ahal izan da Euskadin 214 komunitate erlijioso desberdin dagoela. Komunitaterik gehienak kristautasun erreformatu eta ebanjelikoaren barrukoak dira; ondoren datoz Jehovaren Lekukoak, komunitate musulmanak, budistak eta kristau ortodoxoak. Txostenaren arduradunen aburuz, erlijio aniztasuna «egon badago, hala da». Hori dela eta, Eduardo Ruiz Vieytezek

azaldu zuen gure gizarteko erlijioen ikuspegia nabarmen aldatu dela, eta katolikoak eta katoliko ez direnak egotea atzera bueltarik ez daukan kontua dela. Egoera horren aurrean, sailburuak adierazi zuen «euskal gizartea askotarikoa dela erlijioari dagokionez», eta ezjakintasunak eragin duen erantzuna ez dela beti egokia izan administrazioen aldetik, nahiz eta eskolako jantokietako elikagaien eta sinismen desberdinetako pertsonak lurperatzeko tokien arazoa ondo bideratu ahal izan diren.

Izan ere, Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko zuzendariak uste du erlijio askatasuna, ez dela arazoa, ezta «gizartea desintegratzeko faktorea ere, alderantzizkoa baino. Kohesiorako elementu bat da: egoera sana eta osasungarria, askatasunean oinarritutako gizarte batean. Aniztasunak aberastu egiten gaitu». Erlijio aniztasunarekin lotutako gai hauen guztien inguruan, Deustuko Unibertsitatea beste argitalpen baten prestaketa amaitzen ari da, hau ere Eduardo Ruiz Vieytezek koordinatuta.